



ITZIAR AIZPURUA ▶ JOKIN GOROSTIDIREN ALARGUNA

«Gure bizitzaren ekimen guztiak maitasunak biltzen zituen»

TOLOSA ▶ 'Jokin Gorostidi, autobiongrafia' liburua aurkeztuko du gaur, udaletxean 19:30ean

LIBURUA ▶ «Abertzaleen eta, batik bat, ezker abertzalearen autobiografia litzateke», dio ▶ 2



Villa Paulina Leitzako historiaren parte da dagoeneko

LEITZA ▶ 86 urtez Villa Paulina izeneko etxea egon den lekuan gaur jada ez dago ezer ez. Izan ere, atzo goizean indusmakina lanean hasi eta arratsalderako etxea bota zuten —argazkian, erai-

kina botatzen ari zireneko une bat—. Villa Paulina zegoen lekuan 11 etxebizitza eraikiko dituzte, zinera doan bihurgunea zabalduko dute eta espaloiak eta berdeguneak eraikiko dituzte. N. GARZIA ▶ 7

TOLOSA ▶

'Egunkaria auzian' hiru langile ohi deklaratzera

Gaur Madrilen izango da; Tolosako Begoña Zubelzu, tartean ▶ 6

TOLOSA ▶

Inpernu kalearen nondik norakoak

Andia kaletik Iturritxiki plazara doan kalea ▶ 4

ELDUAIN ▶

Ofizialki ireki dute balioanitzeko gela

Atzo egin zuten inaugurazio ekitaldia agintariek ▶ 6

hitza

Harpidedunen txokoa

HITZAko harpidedun guztien artean

bihar, martxoak 30 Leidor aretoan, 20:00etan

Joseba Tapiak emango duen kontzerturako

5 harpidedunentzako bina sarrera zozketatuko ditugu



KULTURA ▶

Tolosako Orfeoiaren kontzertua, etzi

Gorritiren 'Miserere' eta Charpeintierren 'The Deuma' interpretatuko dituzte

ERREDAKZIOA

Tolosako Orfeoiak bere lehen-dabiziko boletina atera du. Hau bi hilebetez behin argitaratzeko asmoa dute. Honela, bertan agertzen den bezala, larunbat honetan Aste Santuetako kontzertua eskainiko dute Santa Klara elizan. Ekitaldia 20:30ean hasiko da. Bertan, F. Gorritiren *Miserere* eta Charpeintierren *The Deuma* interpretatuko dituzte Tolosako musikariek. Zuzendari lanetan, ohikoa den bezala Ignacio Ruiz de Alegria ariko da.

Abestea gustatzen zaien herritarrei Tolosako Orfeoiaren parte hartzeri gonbidatzen

dituzte Orfeoiko kideek. Hone-tarako, tolosakoorfeoi@euskalnet.net helbidearen bidez telefono zenbakira deituta egin daiteke.

Bestalde, salgai da Tolosako Elkar, Maxi Eroski, Tolosaldea Tour eta Zunbeltz dendetan Orfeoiaren *Tolosa Kantuan* DVDa. Lan honetan kontzertu handi horretako irudiak biltzen dira. Honez gain, prestakuntza saioetako argazkiak ageri dira. Bere salneurria 18 eurokoa da.

Kontzertuan 200 lagunetik gora izan ziren, besteak beste: Jokin Bildarratz alkatea, Urko kantaria, Jose M. Otermin ETB-ko ordezkarri bezala, Jose Ramon Arteta...

ITZIAR AIZPURUA ▶ JOKIN GOROSTIDIREN ALARGUNA

«Maitasunak biltzen zituen gure bizitzaren ekimen guztiak»

'Jokin Gorostidi, autobiografia' liburuaren aurkezpena egingo du gaur, Tolosako udaletxean, 19:30ean



HITZA

ASIER IMAZ

Itziar Aizpurua *Jokin Gorostidi, autobiografia* liburuaren aurkezpena gaur, 19:30ean Tolosako udaletxean. Horren aurretik 19:00etan hain zuzen ere, Tontokalean elkartuko dira Jokin Gorostidiren omeneko plaka zabaltzeko Pablo Gorosabeleko 14.ean. Liburuaren inguruan hitz egin du Itziar Aizpurua.

'Jokin Gorostidi, autobiografia' du izena liburuak.

Horrek esan nahi du 40 urtetan jasotako bion bizi puskak direla liburu honetan jasotakoak, eta ezta ere bionak bakarrik, irakurleak bere burua ere bertan ikusiko baitu. Abertzaleen eta batik bat ezker abertzalearen autobiografia bat izango litzateke.

Lehen pertsonan kontatutako Euskal Herriaren historia al da?

Nire ustez ez da ezinbesteko liburu bat Euskal Herriako historia urbiletik ezagutzeko, baina bi militanten ikuspuntutik kontatutako eta bizi izandako 40 urteko borroka da. Alde batetik 63an hasi zen Jokin erakundearen, ETAn, eta neu 65ean hasi nintzen, 66an ezagutu genuen elkar eta 67az geroztik el-

karrekin bizi izan gara. Geure ikuspegitik begiratura dago, geure bizipenak, pozak, negarrak hainbat gauza mingarri eta harrigarriak pasatutakoak, larriak eta geurekin batera Euskal Herriko zati batek ere bai eta liburuan azaltzen dena lehen pertsonan bizitakoak dira.

Nola antolatu duzu liburuak?

Liburuak bost atal ditu. Oraindik hasten nahiz kontaketan, azken unetik, hau da, zer gertatu zitzaion Jokini. Ifigo Iruinena joan da, despatxotik irten eta gero gertatzen zaio hau Jokini eta kontakizuna horrela hasten da, eta gero lehen atalean sartzen naiz. Ataletan historiako garai ezberdinetan bizitakoa kontatzen dut. Atal batetik besterako tartean, oraindik itzultzen naiz, Jokinen heriotzan bizitakoa eta ondorena kontatuz. Historia luzea da, malko, odol, negar eta sammin haundiak daude baina gauza guztien gainetik maitasuna dago. Honek, maitasunak biltzen baitzuten gure bizitzaren ekimen guztiak. Euskal Herriaren alde lan egitea, borrokatzea bizi osoan eta elkarren arteko maitasuna bizitzea.

Eskutitza batekin amaitzen duzu liburuak.

Bai, Jokini zuzendutako eskutitza bat eta esaten diodana da: «Adiorik ez maitia». Horrekin amaitzen dut.

Barnean duzun samnaren inguruan hitz egitea gogorra izango da?

Liburuaren idazterakoan kontuan izan nuen Jokini nere omenaldia egitea eta, batez ere, ezker abertzaleari eskeintzearena eta hurrengo belaunaldiak jakin dezaten nolakoa izan zen Jokini. Hori da nire helburua. Liburuaren idazterakoan ikaragarria izan da, uztailaren 2an hasi eta bere urtebetetzearen azaroaren 4an bukatu dut. Ariketa ikaragarria izan da, fisiko eta psikiko aldetik ere. Lau hilabete etxetik irten gabe liburuaren egitea. Oraindik ere hitz egitean eta hain barruan dut eta hain gordinik bizi dut, gogorra egiten zait. Baina ezinbestekoa da, beste era batera ere ezin naiz bizi. Hori horrela da, oso zaila zait bizitzea bera gabe.

'18/98 azula' nola azaltzen da liburuan?

18/98 azulak eta 2003. urtean Jokin berriz atxilotua izateak, oso garbi adierazten duela PSOREn borondatea. Azken batean PSOREn esku luze horrek eta bere tribunak Jokini hil duela esaten dut liburuan.

TXOTX

Arratzain

Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparragirre

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitate

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutzea

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta

Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola

Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Inpernu, denon ahotan

Andiatik Iturritxiki plazara doan kaleari izena jarri berri diote, Euskaltzaindiak «toponimoak ondarea direla eta babestu behar» direla dioela kontuan izanik



Inpernu kaleak Andia gurutzatuko du, Euskal Herria plazatik hasita, etxebizitza berrien aldera. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Inpernu erreka Bedaion, Inpernu taberna Tolosan, Inpernu kalea... Euskal Herrian eta baita eskualdean ere, oso arrunta izan da inpernu hitza, lekuak izendatzeko garaian ere, eta, are gehiago Euskal Herriko herririk inauteriza-

le eta bromazaleenaz hitz egiten jarriz gero. Zeresana eman du kalearen izen honek, nahiz eta gurean arrotza ez izan.

Andia kaletik Iturritxiki plazara doan kaleari Inpernu izena jarri diote, *Tolosako Jeku izenak* liburua eta Tolosako toponimoen mapa egiteko gidaritza lanetan aritutako taldea-

ren eta Euskaltzaindiaren onespenerekin. Izan ere, «toponimoak ondarea dira eta babestu egin behar dira, eta pertsonen izenen erabilera murriztu egin behar da. Bizirik dauden izenak jartzea zeharo debekatu behar da, eta hil diren izenak erabili arte epe bat jarri behar da», dio Nazio Ba-

tuen adituen taldeak hartutako erabakiak.

Inpernu izena ez da ezereztik ateratakoa: kale berri honetan lehenago Inpernu izeneko taberna zegoen. Garai hartan Zerua, Purgatorio, edota Zeru-Txiki izeneko tabernak zeuden, eta taberna bateko jabeak Inpernu izena jarri zion bereari, umore onari beti eutsiz. Ordu tik, bada Tolosan Inpernu izenarekin ezagutzen direnak: taberna hartako sendia da, eta aitona zuen umore harekin gogoratzen da izen hau.

Osoko bilkuran bat kontra

Osoko bilkuran gaia jorratu zuten, eta EAJK, EAK eta EBK aldeko botoa eman zuten. PSOE abstenitu egin zen eta PP izan zen kontrako botoa eman zuen bakarra. Sei tolosarren proposamenak jaso zituzten eta tartean hauek proposatu zituzten: Trena kalea, Ainhua Arteta kalea, Tolosako babarruna, Etor-kizun kalea, Euskera kalea...

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Inpernu kalea eta Euskara saila

Oso arraroa egin zait Diario Vascon esaldi hau irakurtzea: «El departamento de Euskera corrobora sin embargo, el nombre de 'Inpernu kalea' siguiendo criterios expuestos por entendidos en toponimia y Euskaltzaindia».

Oso arraroa. Zergatik? Euskara Zerbitzua udal langileok osatzen dugu, eta zerbitzu horretako udal-langileok ez dugu Inpernu izenaren alde ezer ber-

rretsi, indartu edota sendotu, eta udal-langileok gaitasun hori ez dugula jakin beharko luke, nik uste, urte pila bat daraman kazetariak udalaren nondik norakoak jarraitzen.

Udal langileok mila gauzaren alde edo kontra egon gaitetze baina udalen funtzionamenduan guk ez dugu berresten inolako diktamenik, are gutxiago inolako erabakirik, hori politikoei egin dezakete soilik. Langileon iritzia har dezakete kontuan, eta maiz hala izaten da, baina politikoei dira ahalmena dutenak alde edota kontra jartzeko.

Batzorde informatiboek (Euskarakoa, Kulturakoa, Hirigintzakoa...) dena delakoaren alde egiten dute, eta batzordeetan politikoei dira agintzen dutenak. Udal langileok hitza dugu eta gure iritzia ematen dugu, baina ez dugu gaitasunik ezeren alde edo kontra guk diktaminatzeko, are gutxiago erabakitzeke.

Non hartzen dira erabakiak? Hiru modu daude hauek hartzeko: Osoko Bilkuran, Gobernu Batzordean eta Alkatetzadekretuen bidez. Hortaz, erabakiak politikoei har ditzakete soilik, udal-langileen iritzia

kontuan izanda edo izan gabe, jakina. Erabakiak hartzen diren inongo guneetan ez dago udal langileen botorik, ezta diktaminatzen den guneetan ere.

Euskara Batzordeak zerbaiten aldeko edo kontrako diktamina jaulki dezake, baina hori ez da erabakia, hori erabakiak har daitezkeen guneetan daudenentzako aholkuak dira: batzorde honen ustez hau edo hura erabaki beharko luke Osoko Bilkurak, Gobernu Batzordeak edota Alkateak. Eta Batzordeetan, zerbaiten alde edo kontra politikoen botoek agintzen dute, inoiz ez udal langileenek. Udal langileok iritzia ematen dugu batzordeetan, baina politikoei egiten dute alde edo kontra.

Norbaitek jakin nahiko balu Euskara zerbitzuruak zerpentsatzen duen Inpernu kaleaz etor dadila Euskara zerbitzura gustura asko atendituko dut-eta, edo dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 69 74 53 (telefonoz ere gustura atendituko baitut).

INAKI AZALDEGI ARRIETA ▶
TOLOSAKO EUSKARA ETA
HEZKUNTZA ZERBITZUBURUA

ALKIZA ▶

Ekintza plana baloratzeko herri batzarra, bihar

Herri Batzarra egingo dute bihar, Alkizako Kultur Etxean 20:30ean, ekintza planaren balorazioa egiteko. Agenda 21 prozesuaren baitan Udalak herritarren parte-hartzearekin sorturiko ekintza plana onartu zuela urtebete pasa da eta bertan jasotako ekintzen egungo egoeraren berri emango da batzarrean. Orain arte zer egin den jakin ahal izango dute herritarrek eta aldi berean aukera izango da datorren urteari begira zein gaiei heldu behar zaien eztabaidatzeko.

ANOETA ▶

Bigarren Hezkuntzako graduatua

Anoetako Herri Ikastolak Bigarren Hezkuntzako graduatua jasotzera pasatzeko deia luzatu du. 2005-2006 ikasturtean amaitu zutenek aukera dute ikastolako idazkari-tzatik pasatzeko ohiko ordutegian.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita jasoko dute KZgunean

Gaur tutorea joango da KZgunera, 16:00etatik 20:00-etara. Ikastaro bat emango duenez 17:00etatik 18:30era, jendea ager daiteke nabigatzaera ordutegi horretatik kanpo, hau da, 16:00-17:00etara eta 18:30etik aurrera.

BIDEGOIAN ▶

Andoni Zelaiaren epaiketara joateko autobusa

Apirilaren 24an Madrilen Bidegoiango Andoni Zelaiaren presoa epaiketa egingo dute, 10:30ean. Egun horretan han egoteko, Bidegoiango Udalak autobus bat antolatu du apirilaren 23rako. Autobusa doakoa izango da, 16:00etan aterako da eta izena 659 942 759 telefono zenbakian eman daiteke, bihar arte. Gaua Madrilen bertan pasako dute hotelean, baina horren gastuez ez da Udala arduratuko.

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa_redpeugeot.com

Expert berria

KULTURA ▶

Lehiaketa gutunaren inguruan

Aiztondo I. Gutun Lehiaketa antolatute, «generoa berreskuratu asmoz»

ERREDAKZIOA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Aiztondo I. Gutun Lehiaketa antolatute du. «Gutuna literatur generoa da berez», diote antolatzaileek. «Sentienduak komunikatzea sustatu eta genero horren aberastasuna berreskuratzeke» bultzatu dute lehiaketa hori.

Nahi duten pertsonen parte har dezakete, hurrengo kategorietan bananduta: A maila, 6-8 urtekoena; B maila, 9-11 urtekoena; C maila, 12-13 urtekoena; D maila, 14-16 urtekoena; eta E maila, 17 urtetik gorakotzat. Gaia *Nere lagunari* izango da.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake. Gutunak bi orri hartuko ditu gehienez, bakarrik alde batetik idatzita. Epaimahaiak estilo, kontatuaren garapena, aurkezpena eta originaltasuna hartuko ditu kontuan eta, eskuz idat-

zitako lanak badira, baita kaligrafia ere.

Gutunek beste lehiaketa batean saritu gabeak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Hiru kopia aurkeztuko dira, izenburua edo egilearen izengoitia soilik idatzita, idazlea identifika dezakeen bestelako xehetasunik gabe. Jatorrizkoarekin batera, eta kartazal itxian, egilearen datuak sartuko dira: izena, deiturak, helbidea, jaiotze-data, telefonoa eta, posible bada, posta elektronikoa. Kartazalaren kanpoaldean idazlanaren izenburua edo izengoitia eta zein kategoriari dagokion idatziko da.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 17an amaituko da, 14:00etan. Ondoko helbidera bidali behar dira, kanpoaldean Aiztondo I. Gutun Lehiaketa jarritako: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea; Muñoa kalea, 36 Behea; 20159 Zizurkil.

ANOETA-ZIZURKIL ▶ AISIA

Aste Santuan ludotekak antolatu dituzte

ERREDAKZIOA

Anoetako eta Zizurkilgo udalek ludotekak antolatu dituzte Aste Santuetako oporretarako, apirilaren 10etik 13ra. Zizurkil, Aste Santuan Jolasean egitasmoan parte har dezakete 1995-2003 urte bitartean jaiotako haurrek. Izen-emateak Aurrera plazako Udal bulegoetan egin ditzakete interesatuek, 5 euro ordainduz. Epea bihar amaituko da.

Anoetari dagokionez, HH1etik DBH4ra bitartekoek har dezakete parte. 11:00etatik 13:00era bitartean izango da ludoteka, kiroldegian. Zazpi euro ordaindu behar dituzte eta Udalak kontu korrontetik kobratuko du. Ondorengo murrizpenak izango dira: familia ugaria, %25a; Gazte Txartela,

%10a; eta murrizpen bereziak diru-sarrera baxuak dituztenentzat. Izen-emateak apirilaren 2ra arte egin daiteke.

Bestalde, Anoetako Udalak begiraleak behar ditu ludotekarako. Izen-ematea udaletxean egin behar da, apirilaren 2a baino lehen.

Liburutegian aldaketak

Aste Santuko oporrekin lotuta, Anoetako Udalak gogorarazi nahi du apirilaren 5etik 9ra liburutegia itxita egongo dela. Apirilaren 10etik 13ra, 11:00etatik 13:00etara zabalduko da. Interneta erabiltzeko aukera 09:30etik aurrera izango da. Anoetako liburutegiak bere ohiko ordutegia berreskuratuko du apirilaren 24tik aurrera.



Agur esaten diogu aspaldi ezagutzen dugun ahotsari, esaldi hau grabatu zuen Ana Luisarenari, alegia: "El móvil al que llama está fuera de cobertura. Inténtelo más tarde". Gaurtik aurrera, iraganeko kontua izango da hori. Ez diogu berriz entzungo lelo hori.

Euskaltelek estaldura berria du. Eta zuretzat da.



'EGUNKARIA AUZIA' ▶

'Egunkaria'-ko hiru langile ohi inputatuta

Gaur deklaratu beharko dute Madrilén; tartean, Begoña Zubelzu tolosarrak

ERREDAKZIOA

Euskaldunon Egunkaria-ko hiru langile ohi inputatu gisa deklaratzera deitu ditu Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak garuko Madrilén: Tolosan bizi den Begoña Zubelzu, Ainhoa Albisu eta Fernando Furundarena. Ustezko irregulartasun ekonomikoari buruzko auziaren barruan. Hori dela eta, erabaki hau salatuz, Egunkariaren Alde elkarrekin «behingoz, bigabekeri hau buka dadila» eskatu zuen atzo Andoainean, Martin Ugalde Kultur Parkean emandako prentsurrekoan.

Albisu *Egunkaria*-ko administrazioko langile ohiak, eta Zubelzu eta Furundarena kudeatzaile ohiak dira Del Olmok inputatu dituenak, eta atzoko agerraldian Albisu eta Zubelzu izan ziren, Joan Mari Torrealda *Egunkaria* SAko administrazio kontseiluko lehendakari izandakoa eta Iñaki Uria kontseilari ohiarekin batera.

Auzitegi Nazionalan *Egunkaria*-ri buruzko bi auzi daude zabalik: sumario nagusia (itxierari buruzkoa; 2003ko otsailan izan zen operazioa) eta sumario ekonomikoa (us-

tezko irregulartasunari buruzkoa; 2003ko urrian izan zen operazioa). Lehengo auziari dagokionez, fiskalak, defentsak bezala, epailetaririk ez egiteko eta auzia artxibatze eskatua zuen. «Horretaz gain, fiskalak esan zuen bigarren sumarioa ez dela Auzitegi Nazionalaren eskuduntza, eta EAEn dagokion auzitegiak hartu beharko lukeela. Hori delareta, Del Olmok zergatik deitu ditu bigarren sumarioak hiru langile orain?», galdetu zuen Torrealdaik.

Elkarrekin ustez, «PP eta ondokoak ahalegin guztiak egiten ari dira *Egunkaria*-ren kontrako auzi hau ez ixteko. Muntaiak hutsa da baina ez dute nahi jendeak hori ikustea. Nahikoa da! Ez du zentzurik. Giroa txartzeko asmoa dute. Itxi ditzatela sumario denak».

Auzi ekonomikoa, itxierarena ez bezala, oraindik instrukzio fasean dago eta, beraz, Del Olmo epaile instruktorearen esku jarraitzen du. Dena dela, 2003ko operaziotik ia mugimendurik ez da izan.

Albisu, Zubelzu eta Furundarenarekin, 25 lagun dira auzi hau dela-eta epailearen aurrean deklaratu dutenak.

ELDUAIN ▶ GIZARTEA

Ofizialki ireki ditu ateak balioanitzeko zentroak

Haurreskola, Kultur Etxea eta sendagilearen kontsulta aurkitzen dira egoitza berrian



Aurrekoa dantzatu zieten atzo, agintariak. A. IMAZ

ERREDAKZIOA

Atzo inauguratu zuten ofizialki erabilera anitz izango dituen Elduaineko egoitza berria. Bertan, beheko solairuan haurtzaindegia eta sendagilearen kontsulta aurkitzen dira, eta goikoan berriz, Kultur Etxea. Hala ere, dagoeneko martxan dira zerbitzu guztiak, eta herritarrek erabili ditzakete instalakuntzak.

Herritarrekin batera, ekitaldian izan ziren Gabriel Inclan, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua, Lorenzo Urretabizkaia Kutzako ordezkaria eta

Bittor Muñagorri Elduaineko alkatea. Eguerdian plazan elkartu ziren denak, eta instalakuntzak ikuskatu ondoren ekitaldi ofizialari eman zioten hasiera. Hala, Udaberri dantza taldeko kide batek aurrekoa dantzatu zien agintariak.

Atzo inauguratu bazituzten ere, haurtzaindegia eta sendagilearen kontsultak bi urte inguru daramatzate funtzionamentuan. Dena den, Kultur Etxeak duela gutxi ireki ditu ateak, hori dela eta, inaugurazio bakarra egitea egokiago ikusi dute Udaleko ordezkariak.

POLITIKA ▶

Zortzi lagun atxilotu dituzte ETako kide izatea egotzita

Epailearen aurrean deklaratzeari eta ADN probak egiteari uko egin dio Etxeberriak

ERREDAKZIOA

Zortzi lagun atxilotu zituen atzo Guardia Zibilak, ETakoak izatea egotzita. Atxilotetako Euskal Herriko hainbat puntutan izan ziren. Zizurkilén atxilotu zuten Itziar Agirre, hala ere, eskualdeko denik ezin izan da baieztatu edizioa itxi aurretik. Bestalde, Gipuzkoan, Andoainean Jose Angel Lerin Sanchez atzeman zuten, Donostian Juan Carlos Herrador, Idiabalen Iñigo Orue; Araban, Oionen Endika Zinkunegi; Nafarroan, Uharde Arakilén Lorea Irigoien, eta Arkaiz Agote ere atxilotu zuten (non, ordea, ez zuten esan).

Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Gobernuaren Barne ministroak esan zuenez «ETAren azpiegituraren kontrako operazio zabalak» izan zen atzokoa. Dena dela, ez zuten xehetasun askorik eman beranduago arte.

Etxeberria deklaratzera

Asier Larrinaga debarra eta Garikoitz Etxeberria lizartzara presoak deklaratzera eraman zituzten atzo Madrilgo Auzitegi Nazionalera. Biek ere uko egin zioten deklaratzeari eta ADN frogara burutzeari. Izan ere, Askatasunak lizatutako informazioaren arabera, «Frantzian jada burutua zuten frogak».

Epailearen aurrean salatu zuten, entregatuak izan zirenean eskuak eta hankak loturik zituztela, eta mehatxatuak eta galdekatuak izan zirela. Honen ondoren epaileak erabaki du, beraien ziegak itxi eta ADN frogak polizia eta epailetaririk idazkariaren presentzian hartzea.

Askatasunak bidalitako prentsa oharrean gogora ekarri nahi izan du «martxoaren 16an polizia polizia-rako entrega burutu zutela bi preso hauekin, entrega judicial bat izan behar zuena, mehatxu eta galdeketaz beteriko atxiloteta batean bilakatuak». Hala, ilegalki galdekatuak izan zirela adierazi du Askatasunak.

BERASTEGI ▶ TURISMOA



Turismorako informazio puntuak

A. Imaz ▶ Berastegiko Kako Jatetxean Tolosaldeko turismorako informazio puntuak aurkeztu zuten atzo. Aurkezpenaren gonbidatu ugari egon ziren, horietan aurkezle lanetan Joxe Luis Urdangarin, Tolosaldea Garatzeneko gerentea, Angel Irastorza Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza Departamentuko Zuzendaria eta Imanol Olano Tolomendiko teknikaria aritu ziren. «Eskualdeko beste lau puntu estrategikotan» ere informazio puntuak jarriko dituztela esan zuten. A.I.

LEITZA ▶ AZPIEGITURAK



Villa Paulina. Villa Paulina bota behar zutela ez zen gauza berria, hilabeteak pasa baitira hori herrian zabaldu zenetik. Atzo goizean, ordea, indusmakina lanean hasi zenean, asko izan ziren etxe honi azken agurra ematera hurbildu zirenak. Villa Paulina bota eta gero jarraian 11 etxebizitzatoko etxe multzoa egiteko lanean hasiko dira N. GARZIA

Etxe zahar bat gutxiago

86 urtez Villa Paulina egon den lekuan gaur ez dago ezer; atzo goizean indusmakina lanean hasi eta arratsalderako etxea botata zegoen

NAIARA GARZIA

Atzo Leitzako etorbide nagusian dagoen etxerik ederreenetakoa zena, Villa Paulina, bota egin zuten, eraiki eta 86 urte beranduago. Goizeko 08:00ak aldera indusmakina lanean hasi zen, eta Gregorio Sagastibelza Huar-tek egun batean eraikitako paretak, leihoak... behera bota zituen, herritarrek isilik begiratzeko zuten bitartean.

Patziku Perurena idazleak *Leitzako Errege Erregekin* izeneko liburuan azaltzen duen bezala, «Gregorio Sagastibelza Huarte amerikanoa Txubitan-aundi izeneko etxe ederrean jaioa zen 1868an eta gero, 53 urteren burura, bere jaiotxe zaharra bota eta 1921 aldean bere emazte Paulina Candidaren ohoretan eginen zuten Villa Paulina».

Ordudik bertan familia bat baino gehiago bizitu badira ere, horrelako etxe bat herri baten ondare den heinean eta urteak aurrera egin ahala etxe baten hormen iraganaren pi-



Atzo arratsaldean jada ez zen Villa Paulinaren arrastorik gelditzen. N. GARZIA

sua areagotzen den heinean, herritarrentzat ez da xamurra horrelako etxe bat botatzen ikustea. Baina aldi berean Nafarroako Gobernuak etxe bere-ri eta zaharrak mantendu eta zaharberitzeko ematen dituen diru laguntzak ez dira nahiko-ak. «Etxe batek kalifikazio historiko edo artistikoren bat badu, normalean kalterako izaten da, Nafarroako Gobernuak diru laguntza eman arren gauza asko exijitzen baititu, material aldetik, esaterako. Tamaina txikiko etxebizitzak zaharberitzea merezi du, baina oso obra handia denean zaila da», dio Patxi Saenzek, Leitzako alkateak.

11 etxebizitza

Villa Paulina bota eta jarraian 11 etxebizitza eraikitze-ko lanean hasiko dira. Saenzek azaldu duen bezala, «Villa Paulinaren lorategia zegoen lekuan eraiki-ko da etxe multzoa. Gainera zine aldera doan bihurgunea zabalduko da, eta espaloia eta zona berdea egingo dituzte alde honetan. Etxebizitzaren aurrean, berriz, aparkalekuak egingo dira». Etxe multzoaren itxurari garrantzia eman dio Saenzek. «Obraren baimena onartu baino lehen etxaurrea ikusi nuen, eta aurkeztu ziguten proiektuan itxura polita du, egur eta harrizkoa izango da».



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Loatzo musika eskolako ikasleen Aste Santuko kontzertua Alegiko Kultur Etxean 18:30ean.

Alegia. AHTrekin loturiko bideo proiektioa izango da Kultur Etxean, 20:00etan. Parte-Hartze taldea izan da antolatzailea. Herritarrek ekarpenak egin ditzakete.

Lizartza. Idoia Sanchezek ipuin kontaketa egingo du Lizartzako liburategian 17:00etan.

Orexa. Idoia Sanchezek ipuin kontaketa egingo du udalebako batzar aretoan 18:15ean.

Tolosa. Itziar Aizpuruak *Autobiografia* liburua aurkeztuko du udal batzar aretoan 19:30ean. Jokin Gorostidi ezker abertzaleko buruzagiarren eta bere bizitza jasotzen duen liburua.

Tolosa. Orixeko DBHko lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako gurasoek ikasturteko azken saioa izango dute Hilario Garrudo psikologoarekin, 18:30ean. *Gure seme-alaben lagun taldea: berdinaren bitarteko sozializazioa* izango da gaia.

Zizurkil. Ezker abertzaleak herri batzarrera deitu du 20:30ean, Atxulondon.

ZINEMA

Herria. Aki Kaurismaki zuzendariaren *Luces al atardecer* filma eskainiko dute zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN errebasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Haziekin hazten eta hezten

ALEGIA ▶ San Juan eskolako ikasleak hazien tailerraren bidez, hazi ezberdinak ezagutzen ari dira, praktikak eginez eta era erakargarrian

NEREA URBIZU

Tipula, tomatea, zerbak, letxuga, piparrak, erfefautxo, perrexila... Alegiko San Juan eskolako ikasleek *Hazien Tailerraz* gozatu ahal izan dute. Errezildik Euskal Herriko hazien sarea taldeko kide bat etorri da eskolara.

Neska-mutilek argazki eta diapositiba ikustaldia izan zuten lehenik. Bertan, haziei buruzko informazioa eta haien arriskuak ikusi ahal izan zituzten. Ondoren, geletara joan eta etxetik ekarritako yogurt pote-etan lurra bota zuten eta norberak aukeran zuen hazia landatu zuten, etxera eramateko edo bestela eskolan bertan uzteko. Hazien sarea taldearen helburua, «euskal hazien ban-



ikasle batzuk haziak behatzen eta ezagutzen. N. URBIZU

kua biltzea» da: ikertzea, eta haurrekin hauen lana praktikan ere jarri nahi izaten dute jolas moduan. Horregatik, landatutakoaren prozesua ikustea, ezagutzea, edota ikertzea nahi dute.

Beste ikasle batzuk, fitxen bidez haziei buruzko informazio gehiago jaso ahal izan dute.

Bosgarren eta seigarren mailako ikasleei egokitu zitzaizen haziekin lan egitea. Gaur, berriz, txikien txanda izango da. Hemendik gutxira, Zizurkil izango da sare hau.

berria euskarazko zinemarekin

MARTXOAREN 24AN




MARTXOAREN 31N



+ 6,95€

Harpidedunentzat, %20 merkeago
bi DVDak 11 euro

Eskara egiteko, martxoaren 16tik 31 arte, **943 30 43 45** telefonora deitu edo www.berria.info izena eman.

OHARRA: biltegiokak bukatu arteko eskaintza

AUKERA EZAZU. BIZI EUSKARAZ **berria**

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Marixu Anfurrutia Garmendia.
Atzo atera nizun argazkia, gogoratzen? Muxu handi bat.



URTE ASKOAN
Sixta Bengoetxea (Gaztelu).
Amona politenari muxu bat Eñaut eta Iratiren partetik.



URTE ASKOAN
Jose Balerdi (Lizartza).
Gaur 82 urte. Zorionak denon partetik.